



■ Artaldea Maroñoko urtegian, Gorobel mendilerroa atzean duela. Argazkia: Leire Montero

Mikel Arrizabalaga

Maite ditut gaillurrak
argiak ez beste...


Ai, egazia banintz
gaiñik-gain nenbilke!

“Mendi-Gaiña” Xabier Lizardi

EUSKAL HERRIA LAU HAIZEETARA

“Euskal Herria Lau Haizetara” dokumentalen bidez, Euskal Herriko paisaia desberdinak goitik begiratuta ikusteko parada ederra izan genuen. Gure herri zahar honen ikuspegi diferente eta berria erakutsi ziguten helikopteroz grabatutako irudiek, sekula zapalduko ez ditugun tokiak ikusiz, mendiz nahiz itsasoz helezinak diren zoko ezkutuak erakutsiz eta gure begi ninietan betirako grabaturik geratu diren paisaia anitzen sinfonia musikatzuz.

Monografiko honetan, Pyrenaicak gure euskal lurra janzten duten paisaia desberdinak hitzez eta irudiz bildu nahi izan ditu. Baina guztientzat lekurik ez dago eta, horregatik, Xabier Lizardiren poeman agertzen den hegazia legez, Lau Haizetara hegan egin eta Euskal Herriko paisaiak hitzez erakusten saiatuko naiz.



- 1 Urdaibai
 - 2 Zumaia
 - 3 Aiako harria
 - 4 Baztan
 - 5 Irati
 - 6 Itxina
 - 7 Malloak
 - 8 Izki-Arreo
 - 9 Kodesko orratzak
 - 10 Urederra
 - 11 Andia
 - 12 Irunberri-Arbaion
 - 13 Bardeak
- (MAPA NONDIK)

■ Oizera bidean laino itsasoaren gainetik Iturzuriganeko trikuharria ageri da. Argazkia: J. Imanol Aragón

NERBIOI IBIAIAREN ITSASADARRETIK ARABAKO ERRIOXARA

Euskal Herriko hiriburu handiena den Bilbon eman diot hasiera hegaldiari. Berehala, Nerbioi itsasadarraren ertzetan, industrializazio basatiaren ondorioak jasan zituzten lurrak mendean ditut. Galea lurmuturreraino doan ibai-ertzean dauden herriak, dotorezia eta aberastasunaren lekuko izan badira ere, ezkerraldekoek bestelako aurpegi bat erakutsi digute urte askoan. Eta biak lotuz Portugaleteko Zubi Eseki ezaguna.

Ezkerraldeko herrien mugak ikusgaitz diren lurretatik gertu dago Trianoko mendigunea. Bizkaiko

industrializazioaren garaian azala kendu eta bere erraiak agerian utzi ostean, forma harrigarri osatutako ilargi itxurako paisaia geratu zaigu. Errekurtsu naturalen ustiapen ugarien lekuko izan diren lur hauek, gizakiak lapurtutako arnasa errekuperatu dute iraganak betirako loak hartu duen bitartean. Europako burdin-meategirik aberatsenetakoak izan zirenen zauriak sendatu eta egun gizakiaren eraginez sortutako altxor naturalak bihurtu dira Triano, Larreineta, eta Zugaztietako parajeak.

Gure historia sozial eta ekonomikoaren kapitulu garrantzitsuenetakoak bete dituzten paraje hauek atzean utzi, Triano mendilerroa gainditu eta hegoak astinduz Enkarterriko nekazal gune menditsua den Karrantza aldera jo dut. Jorrios



■ *Udazkena Durangaldean.* Argazkia: J. Imanol Aragón

eta Armañon mendien magalak zeharkatuz, euriaren higadurak modelatu dituen Raneroko kareharrizko mendilerroan dauden leize, arraila eta haitzuloek zizelatutako labirintoetara gerturatu naiz. Mendigune malkartsu honetan, interes espeleologiko handia duten Pozalagua, La Torca del Carlista, eta Ventalaperrako haitzuloei bizkarra eman eta Ordunte aldera jo dut. Zalaman hasi eta Kolitzan bukatuz, hamahiru mendik osatzen duten mendilerro honi jarraiki, kostaren eta Donejakue bidearen beraren lotura egiten zuten Balmasedako Erdi Aroko Zubi Zahar ezagunaren ondora jaitsi naiz.

Aiarako lurrak gertu, Gaztelako lautadarekin dugun muga naturala den Gorobel mendilerroaren bila abiatu naiz. Altube eta Angulo mendateen artean luzatzen den mendilerroa, mila metroko altuera duen ordeka itzel batez osaturik dago eta berak markatzen du isurialde atlantikoaren eta mediterraneoaren ur-banalerroa. Txarilazorekin batera, Tologorri, Eskutxi eta Ungino dira Gorobel mendizerraren mendi kuttunenak. Lendoño goiti herritik begiratzuz gero, ezproi itxura duen silueta du Tologorrik, zorrotza eta malkartsua. Unginorenak, berriz, Aiarako larre eta zelaietan nabigatzen ari den itsasontzi baten brankarena. Angel Sopeñak 1924an lehen aldiz eskalatu zuen Frailea izeneko haitz ezagunaren ondotik pasa eta Delikako arroilan amiltzen den Nerbioi ibaiaren iturburua bilatu dut. Gibillo mendilerroko leku garaienean jaio eta 270 metroko erori librean amiltzen den ur-jauzi honek ikuskizun bikaina eskaintzen dio bertaraten denari: aho zabalik uzten gaituen naturaren miraria.

Burgosko lurrak zeharkatu eta kareharrizko hormatarrez moldatutako Valderejoko haran zabalarekin egin dut topo. Industrializazioa apenas ezagutu duen zonalde honek bizi izan duen isolamenduagatik bere baitan gorde ditu naturaren opariak. Parke Naturala iparraldetik hegoalderantz zeharkatzen duen Puron ibaiaren ibilbidea jarraituz, izen bera duen haitzarte zoragarrian murgildu naiz, ur-jauzi eta ur-lasterrek ateratzen duten hotsek nire hegaldia laguntzen dutelarik.

Balio handiko paraje natural hauetatik gertu ikusi dut Haran Gazia, duela mende asko gatzia ustiatzeko gizakiak

moldaturiko guztiz paisaia berezia. Makina bat terraza osatzen duten labirintoaren gainetik pasatzean, Gesaltza Añanak Erdi Aroan hasi eta XIX. menderaino izan zuen garrantzia imajinatu nahi izan dut, gatzia eginez biziraun duen Arabako hiribildurik zaharrenaren bizimodua alegia.

Añanaldeko lurrak utzi eta hegoalderantz egin dut hegan, Ebro ibaiaren ibilbidearen bila. Gatzaga Buradon herritik gora egin eta Trebiñuko lurrak, Arabako Mendialdea eta Arabako Errioxa bereizten dituen Toloño mendilerroarekin egin dut topo. Berdea eta horia, baso trinkoak eta lur-sail biluziak, itzala eta argia... kontrastez betetako bi lurraldeak banatzen dituen harresi naturala. Ipar aldean pagadi bikainez jantzitako magalek erremolatxa eta patata sail handiekin muga egiten dute, hego aldean berriz, artadi, txilardi, mahasti eta labore soroak Ebro ibaiaren urak ukitu arte barreiatzen dira. Antzina, bi lurralde hauetako harremanak oso aberatsak ziren eta naturak altxatutako harresiak gaindiezina dirudien arren, ugariak dira mendilerro honen bi isurialdeak lotzen dituen bideak.

NAFARROAKO ERRIBERATIK PIRINIOETARA

Ebro ibaiaren bidea jarraituz heldu naiz Erriberako lurretara. Erribera kontrastez betetako lurraldea da. Batetik, Ebro ondoko lur emankorren barazki ederren lur sail handiak ikus daitezke eta bestetik, Nafarroa eta Aragoi artean zabaltzen den Bardeako basamortuan haizeak higatutako bide, zulo, aldapa eta mendi muinoek osatzen duten paisaia harrigarri bezain liluragarria. Estepa itxura duen Bardeako paisaia eder hau bitan banatu ohi da: Zuria eta Beltza. Bardea Zuria lautada idorra da, pitzatua, gatz eta buztin argiak, haizeak eta uraren higiduraren ondorioz erliebe bitxia duena, kasik landaretzarik gabe. Bardea Beltzean, berriz, lurra ilunagoa da eta pinu mediterranearreko baso ugari ikus daitezke.

Parke Naturala eta Biosferaren Erreserba izendatutako basamortu honetan tiro eremua da aurkituko dugun arazo ekologikorik larriena. Horregatik, Vedado de Eguarasko oasi berdearen bila joan naiz Bardeako bi gaztelu esanguratsu lotuz: bata gizakiak eraikitakoa (Peñaflor) eta bestea, berriz, naturak zizelkatutakoa (Castil de Tierra). Gertu, Bardeako lurrak



■ Gorbeiaiko gurutzeta izozte gogor baten ondoren. Argazkia: J. Imanol Aragón

zeharkatzen dituen Errege-abelbidea. Ekain aldean ganadua Bardeatik Pirinioetara eraman ohi da eta irailean, berriz, elurrak goi-larreak estaltzen dituenean itzuli egiten dira, negua hemengo lur epeletan igarotzeko. Bostehun urte baino gehiagoko ohitura honek, Erribera eta Zaraitzu nahiz Erronkariko herrien artean lotura estuak sortu ditu.

Altxonbide edo abelbide ezagun hau jarraituz Euskal Herriko basamortua zeharkatu dut ilargi itxura duten paraje hauei airetik azken begirada emanaz. European barrena hegoalderantz datozen hegazti askorentzat negua igarotzeko toki ezaguna den Pitillasko aintzira ikusi dut. Naturgune honetan aurkituko ditugun kolore eta soinuen gure zentzumen guztiak aseko ditu. Muino batean kokaturik dagoen Uxue herritik gertu pasa, Orbaibar eta Oibarko lurak zeharkatu eta aurrez aurre dudan Leire mendilerroaren bila abiatu naiz. Gerturatu orduko, Zaraitzu eta Irati ibaiek ebakitako bi arroila handi ikusi ditut: Irunberrikoa eta Arbaiungoa. Mendeetan zehar, uraren higadurak zizelatu dituen hormatzar bertikal eta arrailez betetako harkaitz hauek paraje helezinak dirudite. Arbaiungoa basatiagoa bada ere, Irunberrikoak bere barrualdetik joateko aukera eskaintzen digu, haitzarte ikusgarri baten edertasunaz gozatuz.

XX. mendearen lehen erdian "El Irati" izeneko trenak zeharkatu zituen Irunberriko arroiaren erraietatik, Leireko monasterioaren gain aldean dagoen Arangoitik gailur aldera hegan egin dut. Garai batean almadiazainen pasabiderik ikusgarriena izan zen Arbaiungo ur zalapantatsuen gainetik pasa eta Euskal Herriko Pirinioetako mendi garaien magaletaraino hedatzen diren Zaraitzu eta Erronkariko haranetan barneratu naiz, artaldean joan-etorrien lekuko izan diren parajeetan hain zuzen ere. Han-hemenka barreiaturik dauden arkitektura zainduko herrietan barrena imajinatu nahi izan dut lur hauetan pasa den mendera arte hitz egiten zen "Erronkariko Uskara", Fidela Bernat azken hitzuna hil eta galtzen utzitako altxorra.

Izaba herri ezaguna gibelean utzi eta bere lurretan goititzen den Euskal Herriko mendi altuena den Hiru

Erregeen Mahaiaren bila abiatu naiz. "Hiru behien zerga" zeremoniaren ospakizuna egiten den San Martin Harriraino igotzen den errepideak marrazten duen linea jarraituz, berehala heldu naiz Belagoako parajeetara. Mendi garaiez inguratutako lautada eder honetan dauden txoko ederrek osatzen duten postalaz gozatu eta 2000 metrotik gora altxatzen den kareharrizko Larrako mendigunerantz jo dut. Pinu beltzaren presentzia nabarmentzen den ingurune karstiko honetan, munduko osin sakonenetako bat aurkituko dugu: San Martingo osina, espeleologoentzat 125 kilometro baino gehiago dituen galeria sareaz osaturiko paradisu erakargarria.

Azal hautsi honetan goititzen diren euskal Pirinioetako mendirik altuenak bilatu ditut. Hegoak indartsu astinduz, gainik gain 2444 metro dituen Hiru Erregeen Mahaiaren tontorrean pausatu naiz, nafar mendizaleen zaindaria den Frantzisko Xabierren metalezko irudiaren ondoan. Euskal Herriko talaia paregabe honetatik dagoen panoramika izugarria da. Haitz zorrotzak, baso trinkoak, larre zabalak, mendi magaletan barreiatutako bordak, haran estu eta amaigabeak, haitzartean amiltzen diren arroiak... naturak modelatu dituen hamaika paisaia eder, naturaz gozatzeko hamaika aukera paregabe.

HIRU ERREGEEN MAHAITIK KANTAURI ITSASORA

Hegoak zabaldu eta pastoralak pasioz beterik bizi dituen Zuberoako lurren bila zuzendu dut nire hegaldia. Lakhura eta Kartxela mendien magaletara iritsi bezain fite, Euskal Herriko txokorik basati eta ederrenetariako diren Basabürüko zintzur edo arroiak ditut mendeen. Santa Graziko eliza erromaniko ezagunetik gertu, Kakueta eta Ehüjarreko zintzurak marrazten dira, aurrerago Olhadübi eta Holtzartekoak. Naturaren indarrek lurrari egindako zauriak.

Segidan, mendeak joan eta mendeak etorri, gizakiak apenas aldatu duen ingurune honen altxorrik ederrenaren

bila hegan egin dut: Iratiko oihana. Arbilako mendigunea albo batera utzi eta Iratiko begiratokirik aproposena den Orhi mendian atsedena hartzea erabaki dut. Irati hostoen eta kolore aldaketaren paradisua da, eta bertan barneratzea Euskal Herriko eremurik birjin eta basatienean barneratzea dela esan daiteke. Udazkenean, basoa milaka tonu ezberdinez jantzi eta kolorez lehertzen da; neguan, berriz, elurrez jantzi.

Mendebaldetik hasita, bi mila metro baino gehiago duen Pirinioetako lehen tontorrari adio esan eta aurrera egin dut. Okabeiko gailurraren ondoan dauden Ilharrietako harrespilek marrazten dituzten zirkulu magikoen gainetik pasa eta Aezkoako bihotzera gerturatzean, Orbaizetako olaren aurriak aurkitu ditut. Benito Lertxundiren "Orbaizetako arma olaren kantua" ezagunaren azken estrofa xuxurlatuz inguru honek garai batean izan zuen bizitza imajinatu nahi izan dut.

Eta eguneroko bakardadean / ixil ixilean / nehor ere ohartu gabeen, /suzko, burdinezko, zizpazko / oroitzapen zaharrak / koptetan jalgitzen dira / hormetan erroak dituzten zuhaitzetan gora.

Gure historiarenean pasarte garrantzitsuak bete dituzten lur hauek atzean utzi eta Orreagako inguruak bisitatzea erabaki dut, 778ko abuztuaren 15ean, baskoiek frankoen erregea zen Karlomagno garaitu zuteneko parajeak hain zuzen. Ibañeta mendateko hegoaldean, Aurizko lautadatik gertu Orreagako multzo monumentalala aurkitu dut. Pirinioetako igarobide naturala izan da antzinatik eta Europatik datozen erromesek bertan aurkitu dute laguntza eta atsedena hartzeko lekua.

Lindus tontorraren ondotik igaro eta Urepeleko artzaia izan zen Xalbador bertsolari ezagunaren artaldeek bazkatzen zituzten larreen gainetik pasa ondoren, Irulegiko mahastiak han-hemen barreiatuak ikusi ditut. Gertu Nafarroa Behereko hiriburua den Donibane Garazi. Urrutiago Arberoko muinoak eta bere erraietan dauden Isturitze eta Otsozelaiko leizeak. Bidarrai eta Baigorri artean hedatzen den Iparlako mendilerroak marrazten duen gandorrek nire arreta erakarri du. Garo, belar eta txillarrek jantzen duten harresi honen kolorea sasoiaren arabera aldatu egiten da: udaberrian eta udan berdez jantzen dira magalak, baina udazkena heltzean garoa gorritu eta erabat

itxuraldatzen da. Lapurdiko mendirik garaiena den Artzamendi albo batera utzi eta Alkaxuri inguratzen duten Aritzakun eta Urritzateko haran estuek erakutsi didate Baztan alderako bidea.

Nafarroako independentziaren ikurra den Amaiurko gazteluaren hondarrek ongietorria eman didate Lauaxeta olerkariaren "Amayur gaztelu baltza" poema ezaguna gogora ekarriak: *Amayur gaztelu baltz ori / —berreun gudari oro sumin— / zaintzen zattuben zaldun onak / Naparra-aldez egin dabe zin.* Baztan haranean barneratzean, berdetasun biziko belar-soroetan eta mendi hegaletan arkitektura ikusgarria duten baserri ederrak ikusi ditut, arras ondo zainduak. Segidan, gerraosteko kontrabandisten joan-etorriak imajinatu nahian edo, harana inguratzen duten basoen gainetik pasa naiz Xaretako eskualdea bilatuz. Izen hau, mugaren bi aldeetako lau herrik osatzen duten euskal eskualdeari ematen zaio: Lapurdiko Sara eta Ainhoa herriak eta Nafarroako Urdazubi eta Zugarramurdi. Historiaurretik hasi eta gaur egun arte, mugaz bi aldeetako elkarbizitza oparoa izan dela frogatzen duten hamaika testigantza daude: kontrabandoa, gerrate karlistak, Donejakue bidea, akelarreak, leizeak eta abar.

Malerreka eta Bortzirietako paraje ezkutuak atzean utzi, Larrun mendiaren gailurretik izar moduan zabaltzen diren sei ertzak airetik behatu eta Iparaldeko ingurune populatuena den Lapurdiko kostara gerturatu naiz.

EUSKAL KOSTALDEA

Aturritik Muskizeraino luzatzen den euskal kostaldea zeharkatzean, makina bat bazter ederrez gozatzeko aukera izango dugu: itsaslabarrak, dunak, uharteak, padurak, kalak, hondartzak, talaiak... paisaiaren aniztasun liluragarria, itsasoak zizelkatutako eskultura erakargarriak.

Aturri ibaiak Landekin marrazten duen mugatik abiatu eta berehala Angeluko hondartzak hartu ditut mendean. Turismoaren garapenak (urbanizazioak, golf zelaia, kirol kaiak...) hareatza luze hau desitxuratu duen arren, Euskal Herriko duna sistemarik osoena da. Begiratoki aparta den San Martin lurmuturrean dagoen itsasargira gerturatu orduko, Biarritzeko iragan aristokratikoarekin egin dut topo. Euskaldunen kostaldea izena duen hondartza gertu dago eta

■ *Olatu izugarriak Itzurun hondartzan (Zumaia).* Argazkia: José Luis Solana "Solasaga"





■ Behorak Bianditzen. Wikipediako argazkirik onenari 2008ko saria. Argazkia: Mikel Ortega

bertan hausten diren olatuen bila dabilta surflari ausartak, 1957 Europan lehen aldiz surfa egin zen leku berean.

Bidarte eta Donibane Lohizune lotzen dituen kostaldean itsaslabarrek gordetzen dituzten hondartzetara gerturatu naiz. Berdegunez inguraturiko hareatza ederrak, nudismoa eta surfa praktikatzeko bazter aukeratuak. Antzina baleen arrantzan aritzen zen Getariako portu txikia atzean utzi eta Donibane Lohizuneko badiaren gainetik hegan egitean gertu ikusi dut badia defenditzeko XII. mendean eraiki zuten Zokoako gotorlekua. Kostako errepidearen norabide paraleloan hegan eginez laster heldu naiz abenturazalea, bidaiaria, intelektuala eta euskaltzalea izan zen Anton Abadiaren gazteluaren ondora eta honekin muga egiten duen parke naturalera. Lur hauetan ekosistema desberdinak aurkituko ditugu eta itsasora hurbilduz gero, labar gris eta arrosak amilduko dira gure oinpean. Aurrez aurre Dunbak ditugu, elezahararen arabera Pirinioetako Jaungorriak Baionako katedrala suntsitu asmoz, Aiako harritik bi harri jaurti eta Hendaia hondartzan eroritako harkaitz bikiak.

Bidasoa ibaiak itsasorako bidea hartzen duenean sortutako Txingudiko badiaren dago hegazti migratzaileentzat babesleku paregabea den Plaiaundiko padura. Aiako harriko mendigune granitikoak albo batera utzi eta Jaizkibeldik Uliara hedatzen den kostalde bortitza bilatu dut. Itsasora amiltzen diren itsaslabar bertikalen eremu honek, Donostiako hondartza ezagun eta ikusgarrietan hartzen du atsedena. Urruti dagoen Getariako saguaren silueta bereziak erakarri du nire arreta. Orio, Zarautz eta Getariako hondartzak pasa eta euskal kostaldeak duen altxor preziatuenetako baten bila abiatu naiz. Zumaia tik Mendatako puntaraino hedatzen den kosta zatian "flysch" egiturak eta marearteko zabalgunek azaltzen dira. Erdi eta Goi Kretazeoko kareharriz, margez eta, neurri txikiagoan buztinez osatutako labarretako haitz geruzetan milioika urteko historia dago idatzita. Mundu osoko geologoak

erakartzen dituen paradisu aparta da. Atzean utzi ditut Deba eta Saturraran artean zabaltzen den kostaldea eta Bizkaikoan murgildu naiz.

Lekeitioraino hedatzen den kostan hamaika kala aurkitu dut. Lasaitasunaren bila joanez gero, Berriatua eta Mendexako kalak bisitatzea merezi du. Ispasterko lurretan dagoen Talaiaiko begiralekutik Ogoñoko harrizarreraino doan kostak bestelako ikuspegia erakutsi dit. Apenas hondartzarik (Ogella eta Ea) dagoen eremu honetan itsalabar ikusgarriak eta harkaitzak nagusitzen dira. Orografia zail eta bortitz honek gordetzen dituen leku interesgarrien bila jo dut segidan. Ogoño lurmuturreko harkaitz ikusgarriaren babesean, mendiaren magalean barreiatu ikusi ditut Elantxobeko etxeak. Altuera hartu eta itsas bazterretik aldentuz, Urdaibai estuarioaren gaineko talaia bikaina den Atxarreko ermitarantz zuzendu dut neure hegaldia. Itsasadarren bokalearen zati handia bere mende hartzen duen balkoi natural honetan pausatu eta aurrez aurrez dudaren naturaren mirariak goatzeko beta hartu dut. Naturaren ondarea den eremu honek, leku interesgarri asko ezagutzeko aukera eskaintzen du: Laga eta Laidako hondartzak, Santimamiñeko kobazuloa, Omarko basoa, Arteagako gaztelua, Izaro uhartea, Gernika... dena gertu.

Bermeotik Punta Galearaino hedatzen den Bizkaiko kostaldetik urrundu aurretik, atzera begiratu eta han ikusi ditut Matxitxakoko lurmuturra eta Gaztelugatxera igotzeko 237 mailako harrizko eskailera amaigabea. Kostari agur esan eta Urdaibairen itsasadarrean murgildu naiz barneko lur eta mendiguneean bila.

BARRUALDEKO MENDIGUNEAK

Busturialdeko lurak atzean laga eta Arratiako haran aldera hegan eginez, Euskal Herriko mendigune garrantzitsuenen bila abiatu naiz. Berehala heldu naiz Gorbeialdera, 1912an euskal mendizaletasunaren sorreran eta bilakaeran eragin




■ *Malloak Betelutik ikusirik.* Argazkia: José Luis Solana "Solasaga"

nabarmena izan zuen Club Deportivo Bilbaok, labe garaietako tximinietatik ateratzen zen kearengatik ihesi antolatutako lehen txango edo ibilaldi jendetsua egin zen Arrabako zelaietara. Segidan Atxuloko begia zeharkatu, Itxinako labirinto karstikoan barneratu eta Gorbeia gurutze ezagunaren ondora igo naiz. Gasteizko lautadari bizkarra emanez Aldamin mendiaren magalean dauden Arimagortako borden gainetik pasa eta Saldropoko hezegune aldera jaitsi naiz.

Euskal mitologian pertsonaiarik ezagunena den Mari egin zuen legez, Gorbeia Superlegorreko leizetik Anbotoko bizilekura jo dut, Durangaldeko mendigunera hain zuzen ere. Anbotoko Mari, Señora, Sorgina, Dama... Mariurrikaren kobia inguratzen duten pareta bertikalen ondotik pasa eta Bizkaiko mendirik garaiena eta Euskal Herriko zirrargarrienetakoa den Anbotoko tontorrean atsedena hartu dut. Talaia paregabe honetatik mendigunearen ikuspegi zabala dut. Inguruan ditudan mendiak, oro har, malkartsuak dira oso. Anboto, Alluitz,

■ *Aiako harrian.* Argazkia: Mikel Ortega



Untzillatx edo Mugarrara joatea besterik ez dago hau egia dela frogatzeko. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako muga zehazten duen Besaideko parajea gertu.

Mari agur esan eta Elgea mendilerroan dauden haize erroten aldera jo dut. Urbiako zelaietara iritsi aurretik, neure mendean ikusi dut Arantzazuko santutegia, euskal arte garaikidearen ikurra. Harresi itxura duen Aizkorriko mendilerroan gainik gain ibili eta gero, Sandratirantz jaitsi naiz. San Adriango pasabidea, historian gune garrantzitsuenetakoa izan dela gauza jakina da, errege galtzada zaharrean eta aldi berean, Done Jakue bidean kokatua baitago.

Gertu dauden Altzaniako mendietatik aurrez aurre ditudan Entzia eta Urbasako mendiguneeetan mila metrotik gaindi dauden goi-larreetara zuzendu naiz. Legaireko paraje ederren gainetik pasa eta belar-soroak eta pagadi hostotsuak txandaka ageri diren Urbasako naturgune babestura iritsi naiz. Ingurune honetako hegoaldeko hegia zakarki amiltzen da Ameskoa haranean eta, hemendik gertu, urak modelatutako zirkuaren magalean Urederreko iturburu, urdin turkesa koloreko ur harrigarria putzu eta ur-jauzietan behera amiltzen denekoa. Altuera hartu eta Andimendiko goi-ordoki luzearen lekuri altuenean dagoen Beriaingo gailurrerantz hegan egin dut. Berehala ikusi dut San Donato eta San Kaietanoren ermita ezaguna, Sakanako talaia berezia.

Hegaldiarekin amaitzeko, parez pare dudun Aralarko mendiguneari bisita egitea falta zait. Gipuzkoa eta Nafarroa artean zabaltzen den mendikate hau ingurune miragarria da, baso lerdenez, belar-soro zabalez, gailur zorrotzez eta gure historiako lekukoak izan diren aztarnez josita dagoena. Malloen gainetik hegan eginez, Gahboaren gailurretik pasa eta Alotzako sakangunetik, Aralarko mendi ezagunena eta bisitatuena den Txindokira (Larrunarri) iritsi naiz, Euskal Cervino txikia bezala ere ezaguna. Atsedean hartzeko tenorea iritsi zait. Azken hegal kolpeak eman eta Aralarko San Migel santutegirantz egin dut. Amaitu da.

Basoak, aintzirak, oihanak, leizeak, karstak, arroilak, gailurrak, ur-jauziak, ibaiak, labarrak, haranak, larreak, flychak, muinoak, ibaiak, errekek, bokaleak, padurak, lautadak, itsasadarrak, mendilerroak, basamortuak, lakuak, uharteak, iturburuak, gatzagak, hondartzak, osinak, arrailak... urrutira joan gabe, gure herri zahar hau zipritzintzen duten hamaika paisaia eder, gure euskararen herria maitatzeko hamaika arrazoi. □